

Guifi.net Fundazioaren eta Zumaiako Udalaren arteko hitzarmena

BILDUTA

Alde batetik, Ramon Roca i Tió (NAN: 33934095-X/IFZ: 012345678-A), Patronatuko lehendakaria den aldetik, eta *Xarxa Oberta, Lliure i Neutral Guifi.net* fundazio pribatuaren izenean (aurrerantzean Guifi.net fundazioa) eta hura ordezkatzuz.

Bestetik, Iñaki Ostolaza Esnal (NAN: 72443977-A), alkate gisa, Zumaiako Udalaren izenean eta hura ordezkatzuz (aurrerantzean, Udala), IFZ: P2008700C; helbidea: Foruen Enparantza, 1. - 20750 - Zumaia (Gipuzkoa).

Bi aldeek elkarri aitortzen diote hitzarmen hau formalizatzeko behar den legezko gaitasuna, eta:

Adierazten dute:

A) Guifi.net fundazioa irabazi-asmorik gabeko erakundea dela, eta politika-, ekonomia- edo gobernu-filiaziorik gabea dela, telekomunikazio-sare ireki, aske eta neutral bat (aurrerantzean, Herri Sarea) eraikitzea sustatzen duena, berdinen, arteko Sare Ireki, Libre eta Neutralaren Herri Ondasuna interkonexio-itunaren bidez (aurrerantzean SILN Herri Ondasuna; gaztelera, *Procomún RALN*). Itun horren arabera, sarera atxikitzen direnek Herri Sarea baldintza berdinetan hedatzen dute guztientzat. Printzipio horien arabera, sareko edozein partehartzailek:

1. Sarea edozein helburutarako erabiltzeko aukera du, sarea beraren funtzionamendua edo gainerako erabiltzaileen askatasuna kaltetzen ez badu.
2. Sarea nolakoa den, zein osagai dituen eta nola funtzionatzen duen jakiteko aukera du
3. Sarea erabili dezake komunikaziorako eta haren funtzionamendua zabaltzeko
4. Sarean sartuta, askatasun horiek baldintza beretan zabaltzen lagunduko du

Eta hori guztia jasota dagoela Guifi.net fundazioaren estatutuetan.

B) Udalak, Informazioaren Gizartearen eta Herritarren Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien abantailerako sarbidea bultzatzeaz arduratzen den toki-erakundea den aldetik, Guifi.net proiektuan lagundu nahi duela, honakoa Herri Sarearen sustatzaile den heinean. Herri Sare hori norbanako, enpresa eta administrazioak SILN Herri Ondasunari atxikitako sarera gehituta eraikitzen da.

C) Guifi.net fundazioa Kataluniako Generalitatearen Fundazioen Erregistroan inskribatuta dagoela (2550 zenbakiarekin); Telekomunikazioen Merkatuko Batzordearen telekomunikazio-operadoreen erregistroan inskribatuta dagoela; Garapenerako GKEen erregistroan inskribatuta dagoela; eta irabazi-asmorik gabe jarduten duela partikularrek, enpresek eta administrazioek Informazioaren Gizartera eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiara sarbidea izan dezaten.

D) Guifi.net fundazioak ez duela inolako bateraezintasunik herri-administrazioarekin kontratuak egiteko edo hitzarmenak egiteko; eta, beraz, ez dagoela Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 60. artikuluan ezarritako debekuen mende.

E) Guifi.net fundazioak, telekomunikazio-operadore gisa, eta betiere arautzen duen udal-ordenantza betez, lehendik dagoen sarea gehitu behar zein sare berria zabaldu behar duela, udalerriko espazioak, lurpeko pasabideak eta airekoak okupatuz.

F) SILN Herri Ondasuna honako hau bermatu eta bermatzeko erabiliko dela:

1. Partikularrek, enpresek eta administrazioek, diskriminaziorik gabe eta askatasunez (aukera berdintasuna eta elkartasunaren balioen pean) komunikatzeko aukera izatea, ahalik eta prestazio gehien probestu ditzaten.
2. Jabari publikoak eta pribatuak ahalik eta modu eraginkorrenean okupatzea.
3. Baldintza berdinetan, gardentasunez eta diskriminaziorik gabe, Herri Sarea telekomunikazioetako edozein operadorearen eskura jartzea, jarduera ekonomikoa azpiegituraren gaineko espekulazio edo domeinuan oinarritu beharrean, Herri Sarearen bidez eskaintzen diren zerbitzuetan oinarrituz.
4. Hori guztia Telekomunikazioen 9/2014 Lege Orokorrean xedatutakoaren arabera egitea.

Horregatik guztiagatik, ordezkariak, bakoitzak bere erakundearen ordezkarietan

ADOSTEN DUTE:

Lehenengo Akordioa: helburua

Hitzarmen honen xedea Udalaren eta Guifi.net fundazioaren arteko lankidetzaren esparrua ezartzea da, Informazio Gizartearen eta Informazio eta Komunikazio Teknologien abantailetarako herritarrentzat sarbidea sustatzea, eta, aldi berean, sektorearen berrikuntza, lehiakortasuna eta garapen ekonomikoa sustatzea, Herri Sarearen bidez alternatibak sortuz.

Helburu horrekin, elkarlanean aritzeko borondatea agertzen dute bi aldeek.

Bigarrena: Konpromisoak

a) Udalak hartzen dituen konpromisoak:

1. Udalak, Telekomunikazioei buruzko maiatzaren 9ko 9/2014 Legeak ezarritakoaren arabera, Guifi.net fundazioaren esku jarriko dituela Udalaren jabetzako komunikazio elektronikoen sare publikoak, kableatuak, kokapenak eta kanalizazioak har ditzaketen azpiegiturak, irabazi asmorik gabeko telekomunikazio-sare ireki, aske eta neutral bat instalatu eta ezartzeko, SILN Herri Ondasunaren arabera.
2. Udalak ez duela ezarriko hitzarmen honek barnebiltzen duenarekiko lehentasunezko eskubiderik edo eskubide eskusiborik inongo enpresa, operadore pribatu, partikular edo Guifi.net fundazioa enpresaren onurarako; aitzitik, lankidetzeta-hitzarmen honen arabera, Guifi.net fundazioa erakundeari agintzen dio kudeatzen duen horretan operadore guztiei sarbidea bermatzeko baldintza neutral, objetibo, garden, ekitatibo eta ez-diskriminatzaileak ezarri behar dituela.
3. Udalak ez du egiten telekomunikazio elektronikoen zerbitzuen operadore gisa, komunikazio elektronikoetarako sare publikorik esplotatzen ez duen heinean, ezta arlo honetako inolako zerbitzu eskaintzarik egiten.
4. Era berean, ez du eremu horiek mantentzeko konpromisorik hartzen, eta betiere, dituen aukeren arabera, jabetzako eta eskumenekoak diren espazioen baldintza operatiboak mantentzen saiatuko da, hargatik eragotzi gabe akordio horien ondorioz eta SILN Herri Ondasuna aplikatzearen ondorioz hirugarren batzuk egotea, eta hirugarren horiek laguntzea mantentze-lanak egiten edo zerbitzu-mailak eskaintzen, beren kostu eta erantzukizunaren arabera.

B) Guifi.net Fundazioak hartzen dituen konpromisoak:

1. Guifi.net fundazioak, jabari publikoa okupatzeko 9/2014 Legeak aitortzen dion bezala, eskubidea du beren azpiegiturak instalatu eta funtzionamenduan jarri ahal izateko, lizentzia eta baimen horien ondoriozko baldintzak betetzeko betebeharra beren gain hartuz. Udaleko arduradunei adierazpenen bidez informatuko du, eta hala badagokio, dagozkien ingurumen eta/edo obra lizentziak eskatuko dira. Erantzukizun-deklarazio eta lizentzia horiek aplikatu beharreko arau-xedapenetan ezarritakoaren arabera izapidetuko dira, eta kasu bakoitzean dagozkion zergak likidatuko ditu.
2. Sarea kudeatzea, sareko parte-hartzaile guztien artean SILN Herri Ondasuna lizentzia nahitaez eta uneoro aplikatuz, eta horrekin, gardentasunaren eta ez-diskriminazioaren betebeharra betetzen dela bermatuz. Erantzukizun adierazpenak eta lizentziak indarrean dagoen Telekomunikazioei buruzko 9/2014 Administrazio publikoaren Lege Orokorra betez egingo da.
3. Irabazi asmoekin jarduera ekonomikoak garatzen dituzten operadoreek jasangarritasunari laguntzen diotela zaintzea, merkatu librearen baitan eta etika eta merkataritza-jardunbide egokiak errespetatu ditzaten bermatzea, bezeroei eta

erabiltzaileei zerbitzu-maila argiak eman eta arazoizkok eskaintzen eta ematen dizkietela, eta gobernantza bat ezartzea hori guztia bete dadin.

4. Eskura duen informazioa ematea, Udalak aukera izan dezan dagozkion tasak ezartzeko, egokitzen jotzen badu eta indarrean dagoen araudiaren arabera.
5. Udalari –Herri Sareko beste parte-hartzaile bat den aldetik– bere eraikinen artean edo bestelako lekuetan tartekak zabaltzea erraztea, baita helburu berarekin bestelako inbertsio-iturri batzuekin Guifi.net fundazioak hedatu ahal izan dituen sareetatik onura ateratzea ere.

Hirugarrena: erabakien publikitatea eta zabalkundea

Bi erakundeek hitzarmen hau publiko egiteko eta ikusarazteko baimena eman dute, beren webguneen eta egoki irizitako beste euskarri batzuen bidez.

Alderdiak baimena ematen dute beren marka eta logotipoak hitzarmen honen baitan sortzen den informazio-erakundearen jartzeko. Hemen ezarritako akordioen ondorioz beste erakundearen marka edo logotipoak erabiltzea beharrezkotzat jotzen den gainerako kasu guztietan, erakunde horiek alde aurreko baimena eskatu beharko dute; baimen hori idatziz emango da.

Laugarrena: indarraldia

Hitzarmen honek urtebeteko iraupena izango du, sinatzen den unetik hasita, eta tazituki luzatu ahal izango da, urtez urte.

Bosgarrena: deuseztatzea

A) Hitzarmen hau desegiteko arazoak hauek dira:

1. Alderdietako batek hala nahi izatea. Gutxienez hiru hilabete lehenago jakinarazi beharko dio beste aldeari, baita indarraldia ez berritzea erabakitzen denean ere. Hiru hilabete lehenago abisatu behar da, telekomunikazioen funtsezko zerbitzuaren jarraitutasuna eta bideragarritasuna arriskuan ez jartzeko. Salbuespenez, eta bideragarritasunera bideratutako arazoi objektiboekin justifikatzen den kasuan soilik, aldeetako batek eskatuta aldi baterako epe hori murriztu edo luzatu ahal izango du hitzarmena behin betiko ebatzi arte, baina inoiz ez arazoizko epeetatik harago, ezta hitzarmenaren behin betiko suntsiarazpena eragotziz ere.
2. Alderdien adostasunez.
3. Araudi aplikagarrietan ezarritako edozein arazoirengatik.
4. Alderdietako batek berari dagozkion betebeharrak ez betetzeagatik.

B) Hitzarmen hau deuseztatzearen ondorioz, sareko azpiegiturak bereizteak eragindako gastuen kasuan, honako irizpide hauek aplikatuko dira:

1. Bien adostasuna dagoenean, deuseztatzearen unean zehaztuko da
2. Deuseztapena aldeetako batek aldebakarrez eskatzen duenean, deuseztapena eskatzen duen alderdiaren kontukoan izango dira gastuak
3. Hitzarmena alderdietako batek bere betebeharrak ez betetzeagatik deuseztatzen denean, hitzarmena betetzen ez duenaren kontukoak izango dira gastuak


Seigarrena: aldaketa

Hitzarmen honen edozein aldaketa bi aldeek sinatutako eranskin baten bidez formalizatuko da.

Zazpigarrena: jurisdikzioa

Hitzarmen honen izaera juridikoa administratiboa da, eta beraz, administrazioarekiko auzien jurisdikzioari dagokio sor daitezkeen desadostasunak eta interpretazioak ebaztea.

Alde batetik, *Fundació Privada per a la Xarxa Oberta Lliure i Neutral Guifi.net* erakundearen izenean,



Ramon Roca i Tió
Patronatuko lehendakaria

Beste aldetik, Zumaiako Udalaren izenean,



Iñaki Ostolaza Esnal
Zumaiako Alkatea

